



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urtarrilaren 31

10. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00007. Nafarroako 2023ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00018. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartu du (4. or.).

—11-24/PRO-00017. Foru-lege proposamena, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak ezetsi du (4. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00105. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat. Mozioa erretiratzea (5. or.).

—11-25/MOC-00005. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztu du (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-25/PES-00023. Galdera, 2025-2026 ikasturtean bi ikastetxetan bi urteko gelak ezartzeko asmoari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (8. or.).

—11-25/PES-00024. Galdera, BSHko Europako Batzordearekiko bileraren emaitzari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (9. or.).

- 11-25/PES-00025. Galdera, BSH Electrodomésticos España SAko zuzendari teknikoarekin izandako harremanaren emaitzari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (10. or.).
- 11-25/PES-00026. Galdera, Industriako estatu idazkariarekin izandako harremanaren emaitzari buruzkoa. MMaría Isabel García Malo andreak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00027. Galdera, BSHko enpresa-batzordeari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00028. Galdera, lanerako erabilgarri ez dauden errenta bermatuaren jasotzailei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00029. Galdera, 2023-2027 legegintzaldirako programa-akordioan hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzko kontu-ematearen txostenari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00030. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionaleko nabean egin beharreko obren lizitazioari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00031. Galdera, Nafarroan datu-tratamenduko zentroak paratzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00032. Galdera, Aragoi, Madrilen edo Extremaduran datu-zentroak paratu edo paratuko dituzten enpresa teknologikoei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00033. Galdera, otsailaren 22ko 9/2012 Foru Dekretua eta/edo martxoaren 30eko 240/2015 Ebazpena aldatzeari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00034. Galdera, ingurumenaren arloko fiskalitateari buruzko foru-lege proiektuari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00035. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko langileek izandako elikadura-intoxikazioei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00036. Galdera, Untzitiko errekatik heldu den ura sartzea ekidite aldera Eloko urtegiaren egin beharreko obrei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00037. Galdera, Doña Álvaro Álvarez ikastetxe publikoan D ereduko lerro bat jartzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (19. or.).
- 11-25/PES-00038. Galdera, Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroaren egoitza mantentzeko gastuei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (19. or.).
- 11-25/PES-00039. Galdera, Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroaren egoitza hobetzei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00040. Galdera, Hezkuntza Departamentuaren Hezkidetza Plana ezartzei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00041. Galdera, jakiteko ea zer egin den Atarrabiako Atargi ikastetxeko irakasle baten jokabidea dela-eta aurkeztutako salaketari buruz. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00042. Galdera, Adimen Artifizialari buruzko ikerketarako deialdia dela-eta gertatutakoaren balorazioari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00043. Galdera, lokomozio-gastuetarako kargatik salbuetsitako gastuei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (23. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-25/QSR-00001. Gora jotzeko errekurtsua, merezimendu-balorazioko behin-behineko emaitzei aurkeztutako alegazioak ezestearen aurkakoa (lehiaketa-fasea), honako deialdi honi dagokionez: Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hamahiru administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horiatarik hamaika Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak izanen dira –bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin–, eta beste bi, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak (24. or.).
- 11-24/ELCR-00002. Talde parlamentarioek ordezkariak izendatzea Nafarroa Markaren Mahairako (25. or.).
- 11-25/REPA-00007. Foru parlamentariak 2024an jasotako ordainsariak (26. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00007. Nafarroako 2023ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako 2023ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako 2023ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Legea

HITZAURREA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrak prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezen. Hori guztia foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du

Nafarroako Kontu Orokorraren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru-lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2023ko ekitaldiko Kontu Orokorreari buruz adierazitako tramiteak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpene eta izapidetua dago Nafarroako 2023ko Kontu Orokorreari buruzko foru-lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 178. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onesten dira Nafarroako 2023ko Kontu Orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontu Orokorraren edukia Nafarroako Atarian ematen da argitara.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00018. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTU DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena aintz

zatz hartzea. Foru-lege proposamen hori Irene Royo Ortín andreak aurkeztu zuen, eta 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/PRO-00017. Foru-lege proposamena, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena ezetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-24/MOC-00105. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz
egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren
obesitatea prebenitzeko kanpaina bat**

MOZIOA ERRETIRATZEA

2025eko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko

ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat. Mozioa 2024ko urriaren 4ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00005. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean eztabaidatzeko:

ZIOEN AZALPENA.

1.- Haurren obesitatearen arazoa gero eta handiagoa da gaur egungo gizartean, eta Nafarroa ez da salbuespena. Haurren obesitatearen prebalentzia areagotu egin da azken urteotan, nazioan gertatzen denaren antzera. Azken azterlanen arabera (Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia. Osasun Publikoaren Institutua. Azken berrikusketa, 2024ko martxoa), 6tik 9 urtera bitarteko haurren % 12k dauka, gutxi gorabehera, obesitatea, eta % 30ek, berriz, gehiegizko pisua. (6tik 9 urtera bitarteko haurren taldea da prebalentziarik handiena daukana gehiegizko pisuari, obesitateari eta obesitate larriari dagokienez)

2.- Auzi honen arrazoi nagusiak zuzenean lotuta daude adin horretako bizimoduarekin, eta eragin nabarmena dute haurren obesitatean:

Elikagai ultraprozesatu eta edari azukredun gehiegi kontsumitzea eta fruitu eta barazki gutxiegi kontsumitzea.

Sedentarismoa: jarduera sedentarioetan denbora gehiago ematea (esaterako, telebista ikusten edo gailu elektronikoen jolasten) eta jarduera fisikoari emandako denbora gutxitzea.

Faktore sozioekonomikoak: maila sozioekonomiko baxuagoko familiek haurren obesitatearen prebalentzia handiagoa izan ohi dute, mugatua goa daukatelako elikagai osasungarriak lortzea eta aisialdiko jarduerak egin ahal izatea.

3.- Eragina osasunean: Haurren obesitateak osasuneko hainbat arazo sor ditzake epe motzean nahiz luzean, esate baterako, 2 motako diabetesa, hipertentsioa, bihotz-arazoak eta autoestimua baxua eta depresioa bezalako adimen-osasuneko arazoak.

4.- Ekimenak eta politikak Nafarroan: Eskoletan ohitura osasungarriak sustatzeko zenbait programa ezarri ditu Nafarroak azken 20 urteotan, hala nola jarduera fisikoa sustatzea eta eskolako menuen kalitatea hobetzea. Egun, Osasun Publikoaren Institutuak abian du Elikadura Osasungarriaren Nafarroako Estrategia, zeinak, funtsean, nutrizio-hezkuntza eta haurren eta gazteen ohitura aktiboak sustatzea jasotzen baititu. 2005-2006 ikasturtean, Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak aztura osasungarriak sustatzeko kanpaina berritzaile bat jarri zuen abian zenbait ikastetxetan. Programa horrek honako helburu orokor hauek zeuzkan:

Esku-hartze "integral" bat egitea, gurasoak, irakasleak, ingurunea eta haurrak berak inplikatu dituen, bizimodu osasuntsuaren sustapena bultzatuz. Horretarako, elikadura osasungarriekin lotutako gomendioak ematen dira, bai eta eguneroko bizitzan jarduera fisiko gehiago egitearen beharrezkin lotutakoak ere.

Gaixotasun kardiobaskularra izateko arrisku-faktoreak murriztea.

Elikadurari eta jarduera fisikoari buruzko oinarriko informazioa ematea ikasleei oro har eta obesitatea eta gehiegizko pisua duten haurrei bereziki. Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoren Institutuaren webgunean ikus daiteke kanpaina horrek zer eragin eta ondorio positibo izan dituen parte-hartzaileengan. 2018an, Nafarroako Kirolaren Institutuak, Miguel Indurain Fundazioarekin eta Pirinio Atlantikoetako beste 5 organismo publikorekin batera, programa hori gaurkotu eta zabaldu du, mugaz gaindiko ANETO proiektuaren bidez.

Programa horrek honako helburu orokor hauek zeuzkan:

a.- Mugaz gaindiko esku-hartze integrala egitea 6tik 8 urtera bitarteko haurren obesitatea eta gehiegizko pisua prebenitzeko, gurasoak, irakasleak eta ingurunea ere inplikaturiko dituen, bizimodu osasuntsua sustatzeko.

b.- Gizartea sentsibilizatzea, behar bezala elikatzearen eta ariketa fisikoa egitearen garrantziaz, bizitzako lehen urteetatik hasita.

c.- Ariketa fisikoa areagotzeak eta elikadura hobetzeak, biek batera, gorputzaren osaeran eta gaitasun fisikoan dauzkaten ondorioak aztertzea.

d.- Europako hezkuntza-sarerako oinarriak sortzea, eskolen arteko interakzioa eta jardunbide egokien trukea laguntzeko. 2021eko urtarrilean eman ziren jakitera kanpaina horren emaitzak, zeinak oso balorazio ona jaso baitzuen. 2021etik hasita, Nafarroako Kirolaren Institutuak, Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez, haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina horiek egiteari utzi dio, halako moduan non abandonatu egin baitu osasuna jarduera fisikoaren bidez sustatzeko arlorik garrantzitsuenetariko bat.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Gobernua premiatzen dugu Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultzatzea dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00023. Galdera, 2025-2026 ikasturtean bi ikastetxetan bi urteko gelak ezartzeko asmoari buruzkoa*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, 2025-2026 ikasturtean bi ikastetxetan bi urteko gelak ezartzeko asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Jakin dugunez, Hezkuntza Departamentuak bi urteko gelak ireki nahi ditu 2025-2026 ikasturtean Barañaingo Alaitz Ikastetxe Publikoan eta Antsoaingo Ezkaba Ikastetxe Publikoan.

2024-2025 ikasturtean, Hezkuntza Departamentuak bi urteko gela-pilotuak ezarri ditu Iruñeko Iturrama HLHIP eta Doña Mayor HLHIPetan eta Arroizko La Balsa HLHIPan.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

Bi urteko gela berri horiek irekitzeko, egin al da 2024-2025 ikasturtean ezarritako pilotajearen ondorioen aldez aurretiko azterketarik?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/PES-00024. Galdera, BSHko Europako Batzordearekiko bileraren emaitzari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, BSHko Europako Batzordearekiko bileraren emaitzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2024ko ekainaren 18an, Nafarroako Parlamentuan lan-bilkura bat egin zen BSHko enpresa-batzordearekin. Bertan, enpresa-batzordeko kideek adierazi zuten hiru aste lehenago Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariarekin bilera izan zutela, enpresak bizi zuen egoera zailaren berri emateko. Bilera horretan, kontseilariak laguntzeko prestutasuna agertu zien. Zehazki, esan zuten kontseilariak Europako Batzordearekin harremanetan jartzeko konpromisoa agertu ziela, hori baita multinazionalak bere asmoen berri ematen dizkion informazio- eta kontsulta-organoa.

Zein izan da Europako Batzordearekin izandako harremanaren emaitza?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-25/PES-00025. Galdera, BSH Electrodomésticos España SAko zuzendari teknikoarekin izandako harremanaren emaitzari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, BSH Electrodomésticos España SAko zuzendari teknikoarekin izandako harremanaren emaitzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2024ko ekainaren 18an, Nafarroako Parlamentuan lan-bilkura bat egin zen BSHko enpresa-batzordearekin. Bertan, enpresa-batzordeko kideek adierazi zuten hiru aste lehenago Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariarekin bilera izan zutela, enpresak bizi zuen egoera zailaren berri emateko. Bilera horretan, kontseilariak laguntzeko prestutasuna agertu zien. Zehazki, esan zuten kontseilariak José Yuste Pallarés BSH Electrodomésticos España SAko zuzendari teknikoarekin harremanetan jartzeko konpromisoa agertu ziela.

Zer emaitza izan du harreman horrek?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-25/PES-00026. Galdera, Industriako estatu idazkariarekin izandako harremanaren emaitzari buruzkoa

MMARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Industriako estatu idazkariarekin izandako harremanaren emaitzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2024ko ekainaren 18an, Nafarroako Parlamentuan lan-bilkura bat egin zen BSHko enpresa-batzordearekin. Bertan, enpresa-batzordeko kideek adierazi zuten hiru aste lehenago Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariarekin bilera izan zutela, enpresak bizi zuen egoera zailaren berri emateko. Bilera horretan, kontseilariak laguntzeko prestutasuna agertu zien. Zehazki, esan zuten kontseilariak Industria Ministerioko estatu-idazkariarekin harremanetan jartzeko konpromisoa agertu ziela.

Zer emaitza izan du harreman horrek?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-25/PES-00027. Galdera, BSHko enpresa-batzordeari buruzkoa*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, BSHko enpresa-batzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen

Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2024ko ekainaren 18an, Nafarroako Parlamentuan lan-bilkura bat egin zen BSHko enpresa-batzordearekin. Bertan, enpresa-batzordeko kideek adierazi zuten hiru aste lehenago Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariarekin bilera izan zutela, enpresak bizi zuen egoera zailaren berri emateko. Bertan, kontseilariak zenbait konpromiso hartu zituen, besteak beste, BSH enpresa-batzordeari emandako pausuen berri ematea.

Nola jakinarazi zaizkio enpresa-batzordeari emandako pausuak?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-25/PES-00028. Galdera, lanerako erabilgarri ez dauden errenta bermatuaren jasotzaileei buruzkoa*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, lanerako erabilgarri ez dauden errenta bermatuaren jasotzaileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Urtarrilaren 15ean, Kontuen Ganberak "Errenta bermatuaren kudeaketa eta enpleguan duen inpaktua (2019-2023)" fiskalizazio-txostena argitaratu zuen. Txosten hori Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eskariz eginikoa da. Txostenean ondorioztatzen denez, 2023an, errenta bermatuaren onuradunen % 44 soilik zeuden lan egiteko prest. Horietatik % 38 18 urtez beherakoak dira.

Adingabe horietatik, zenbat dira errenta bermatuaren unitate jasotzailearen titular?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-25/PES-00029. Galdera, 2023-2027 legegintzaldirako programa-akordioan hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzko kontu-ematearen txostenari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, 2023-2027 legegintzaldirako programa-akordioan hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzko kontu-ematearen txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein entitate eta pertsonak taxutu dute pasa den urtarrilaren 17an Iruñean aurkeztu zen kontu-ematearen txostena, Nafarroako Alderdi Sozialistak, Geroa Baik eta Contigo-Zurekinek sinatutako 2023-2027 legegintzaldirako programa-akordioan hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzkoa?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00030. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionaleko nabeetan egin beharreko obren lizitazioari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionaleko nabeetan egin beharreko obren lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– 2024ko ekainaren 19an iragarri zen Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionalaren proiektua berriro lizitatu behar zela prezioak eguneratzeko. Lizitatu al dira zentro hori hartuko duten nabeak birgaitu eta egokitzeko obrak?

–Hala bada, noiz?

– Ezezkoan:

• Noiz lizitatzeko asmoa du Gobernuak?

- Arazorik egon al da orain arte ez lizitatzeko?
 - Gobernuak uste du obrak egin ahalko dituela proiektu horri esleitutako europar funtsak arriskuan jarri gabe?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00031. Galdera, Nafarroan datu-tratamenduko zentroak paratzeari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Nafarroan datu-tratamenduko zentroak paratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babe-

sean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

2025eko urtarrilaren 15ean, Nafarroako Gobernuko lehendakariak eta Eraldaketa Digitaleko eta Funtzio Publikoko ministroak eginiko bileran:

1. Lehendakariak ministroari helarazi zizkion datu-prozesaketarako zentroekin zerikusia duten enpresen eskakizunak, bai eta zentro horiek Foru Komunitatean kokatu ahal izateko azpiegitura elektriko bat izateko beharrezana ere. Zeintzuk dira eskakizun horiek? Zer proiektu daude Nafarroan balizko datu-prozesaketarako zentroak ezartzeko?

2. Kontuan hartuta Chip ESEPE-ko proiektuak abian jartzeko gehienezko epea (2025eko erdialdea) eta lehendakariak bilera horretan aipatu zituela funts europar erabilgarriak Nafarroako enpresa emergenteek beren proiektuak gauzatu ahal izateko katalizatzaile gisa, zer proiektu daude Nafarroan jarduketa-epea amaitu baino lehen ESEPE horretan sar daitezkeenak?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-25/PES-00032. Galdera, Aragoi, Madrilen edo Extremaduran datu-zentroak paratu edo paratuko dituzten enpresa teknologikoei buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Aragoi, Madrilen edo Extremaduran datu-zentroak paratu edo paratuko dituzten enpresa teknologikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

2019ko ekainaz geroztik Aragoi, Madrilen edo Extremaduran datu-zentroak paratu edo paratuko dituzten enpresa teknologikoak direla-eta (Amazon, Google, Microsoft...):

1. Horietakoren bat jarri al zen harremanetan Nafarroako Gobernuarekin Nafarroan balizko inbertsio bat egiteko interesa agertzeko? Hala bada, xehakatu Gobernuarekin harremanetan jarzteko modua eta helarazitako informazioa.

2. Enpresa teknologiko hauetakoren batek interesik izan badu Nafarroan inbertitzeko, zer arrazoi azaldu zuten Nafarroan ez eta beste autonomia-erkidego batean inbertitzeko?

3. Ba al da proiekturik (datu-zentroak edo bestelako azpiegiturak) enpresa teknologiko hauen erabakiaren zain dagoenik, hau da, enpresek Nafarroan inbertitzeko interesa helarazi bai baina oraindik erabaki gabe dagoenik?

4. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du neurriak hartzea egungo egoera alderantzikatu eta sektore teknologikoko enpresen inbertsio garrantzitsuak erakartzeko? Zeintzuk lirateke neurri horiek?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-25/PES-00033. Galdera, otsailaren 22ko 9/2012 Foru Dekretua eta/edo martxoaren 30eko 240/2015 Ebazpena aldatzeari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, otsailaren 22ko 9/2012 Foru Dekretua eta/edo martxoaren 30eko 240/2015 Ebazpena aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarzen denaren babesean, honako hau dio:

2023ko urrian, errendimendu handiko kirolari izateko prozedurari, baldintzei eta arauari buruzko ahozko galdera bat egin nion Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariari, emakumezko kirolari nafar bat zerrenda horretatik kanpo geratu baitzen. Arau horiek martxoaren 30eko 240/2015 Ebazpenean jasota ageri dira.

Orduan adierazi zen Gobernuak baldintza horiek berrikusiko zituela, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko errendimendu handiko kirola eta goi mailako kirolarien zerrenda arautzen dituen otsailaren 22ko 9/2012 Foru Dekretua ere.

Hori dela-eta, galdera idazti hau egiten diogu Nafarroako Gobernuari:

Aldatu al da otsailaren 22ko 9/2012 Foru Dekretua eta/edo martxoaren 30eko 240/2015 Ebazpena, non ezartzen baitira Nafarroako goi mailako kirolari izateko baldintza teknikoak eta kirol-baldintzak?

Ezezkoan, noiz aldatuko dira foru dekretu hori eta ebazpen hori?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-25/PES-00034. Galdera, ingurumenaren arloko fiskalitateari buruzko foru-lege proiektuari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

